

# Komunikazioa Erakundeetan Aditu Tituluaren hirugarren edizioak ireki du izena emateko epea

2017/06/05

Uztailaren 6a arte egongo da irekita epea izena emateko Komunikazio Erakundeetan Aditu Tituluaren 3. edizioan. Graduondoa hasiko da urriaren 9an eta, aurreko edizioak bezala, aurrez aurreko eskolak emango dira, ostegun arratsaldetan, Aretxabaletako campusean. Mondragon Unibertsitateko titulu propio hau **oso modu praktikoan antolatuta dago**; bertan parte hartuko dute unibertsitateko irakasleek eta erakunde desberdinetako komunikazio arduradunek.

Aditu titulu hau zuzenduta dago lanean dihardutenei eta lizentziadun berriei. Batetik, lanean dabiltzanei enpresa, elkarte eta erakundeetan, batez ere, komunikazioan, kudeaketan, koordinazioan edo zuzendaritza lanetan; bestetik, aditu titulu hau oso egokia da enpresa-komunikazioaren nondik norakoak ezagutu eta menderatu nahi duten lizentziadun zein graduonduentzat, bereziki ikasketa hauek dituztenentzat: Ikus-entzunezko Komunikazioa, Humanitateak eta Enpresa, Kazetaritza, Lan Harremanak eta Industria Antolakuntza Ingeniaritza.

Aditu titulua **10 ECTS kreditutan banatuta dago, 5,5 ECTS edukietarako eta beste 4,5 proiekturako**. Guztira, ikasleak beharko ditu 250 ordu graduondoa egiteko, horitako batzuk presentzialak eta, beste batzuk, aldiz, etxean egitekoak. Ikastaroa 6 materia handitan dago banatuta, horietan guztietan uztartuko dira jardun teorikoak eta praktikoak.

## Informazio saioa

Adituari buruzko argibideak emateko, informazio saioa antolatu da, ekainaren 15ean, 18:30etan, Aretxabaletako campusean.

- Izena-emateko informazio saioan: **ekainaren 15eko informazio saioa**.

## Egitaraua

- 1) Harrera eta komunikatzailearen definizioa eta profesionalen profila (egun bat).
- 2) Branding-a eta markaren kudeaketa (1,5 ECTS. 4 saio):
  - Branding-aren oinarriak.
  - Esperientziak.
  - Estrategiak.
- 3) Komunikazio korporatiboa (1,5 ECTS. 4 saio):
  - Barne eta kanpo komunikazioa.
  - Erantzukizun soziala.
  - Parte-hartzea eta gardentasuna.
- 4) Sare sozialen erabilera: ospea, jarraipean eta neurketa (1,5 ECTS. 4 saio):
  - Komunikazio digitalaren estrategia.
  - Sare sozialak eta community management.
  - Web edukiak.
  - Web analitika.
  - Marketin digitala.
  - Sare sozialen monitorizazioa eta entzuketa aktiboa



Eskolak hasiko dira 2017ko urriaren 9an

5) Komunikazio plana (1 ECTS. 3 saio):

- Nola eta zertarako.

6) Aditu Bukaerako Proiektua (4,5 ECTS):

- Definizioa.
- Diseinua.
- Errealizazioa.
- Aurkezpena.

## Egutegia

Eskolak Aretxabaletako campusean izango dira, 15:00etatik 18:30etara.

Hauetxek dira aurrez aurreko eskola emango diren egunak:

### 2017

- Urria: 9 eta 26.
- Azaroa: 2, 9, 16, 23 eta 30.
- Abendua: 14.

### 2018

- Urtarrilea: 11, 18 eta 25.
- Otsaila: 1, 8, 15 eta 22.
- Martxo: 1, 8, 15 eta 22.
- Apirila: 5 eta 12 (tutoretzak).
- Maiatzean aurkezpenak: 3/4 saio.

## Informazioa eta izen-ematea

- **Informazio guztia:** Komunikazio Erakundeetan Aditu Titulua
- **Izena emateko:**
  - Idatzi mezua: [idadkaritza.huhezi@mondragon.edu](mailto:idadkaritza.huhezi@mondragon.edu)
  - Deitu telefonoz: 943 71 31 39 (Jaione Urbieta).